



GIZAPEDIA

[gizapedia.hirusta.io](http://gizapedia.hirusta.io)

# ZERGA ARAUBIDEA

**Egilea: Josemari Sarasola**

# 1 Ariketak

1. Honako datu hauek ditugu:

- Oinarri zergagarria 100.000€ da.
- Batez besteko zerga-tasa legala %15 da.
- Kuota osoa 12.000€ da.
- Kuota likidoa 10.000€ da.
- Zergaren konturako ordainketak 3.000€ dira.
- Atzerapenagatik %5eko gainzama ordaindu beharko da.

Kalkulatu: (a) oinarri likidagarria, (b) oinarrian txikipenak, (c) kuotan kenkariak, (d) zerga zorra.

(a)

Kuota osoa (KO) eta zerga-tasa legala jakinda, oinarri likidagarria (OK) atera dezakegu:

$$KO = OL \times t_{legala}^* \rightarrow OL = \frac{KO}{t_{legala}^*} = \frac{12.000}{0.15} = 80.000$$

(b)

Oinarrian txikipenak oinarri zergagarrian egiten dira, oinarri likidagarria emateko:

$$Txikipenak = OZ - OL = 100.000 - 80.000 = 20.000$$

---

2. Pertsona baten zerga likidazioari buruz hauek dakizkigu:

- Oinarria zergagarria 25.000€ da.
- Zerga-tasa legala %10 da.
- Gainzamak 3.000€ dira.
- Kuotan kenkariak 2.000€ dira.
- Konturako ordainketak 500€ dira.
- Oinarrian txikipenak 5.000€ dira.

Kalkulatu zerga-zorra.

---

- 
3. Ogasunean zerga baten 100.000€ko oinarri zergagarri estandar baterako %20ko tasa legala ezarri nahi da, %16ko tasa efektiboarekin. Kalkulatu zenbateko kenkariak ezarri behar diren kuota osoan, txikienak 10.000, 5.000 eta 0 eurotan finkatzen badira.
-